



**Ez zaude euskaraz nabigatzen.** Interneten ere, lehen hitza euskaraz!

Konfiguratu nabigatzailea [euskaraz nabigatzeko](#). Oso erraza: eskaini minutu bat euskarari.



Gehiago jakin nahi duzu?

# Markos Zapiain

## [Bizkaiko bertsolarien finala](#)

Estiballes, Lekue, Amuriza eta Enbeita ezagunak genituen, egundoko saioa egin zuten larunbatean BECen zortzi finalisten artean, baina ustekaberik atsegina ezezaguna zitzaigun Beñat Ugartetxeak eragin zigun. Ugartetxearen kanta-erak, umoreak eta tinbreak Lazkao-Txikirena oroitarazten du. Batzuetan ematen du bertsoa desorekatzera doala baina azkenean biribil irteten zaio. Herrena izango da Ugartetxearen ibilera, baina ezin zuzenagoa bere bertsoaren txinparta.

Gure aurrean Eneko Abasolo "Abarkas"en senide batzuk zeuden, tartean ama. Ikusgarria semearekiko lotura sentimentala eta enpatia 100 metro eta buru mordo gaintuz, nola bizi zituen amak semearen bertsoak barru-barrutik, nola sufritzen zuen akatsen erruz eta gozaten semeak asmatzen zuenean, eta hunkitzen ikusleen animo-oihuekin. Zortzigarren gelditu zen, azkena, baina jaso zuen txalo-zaparrada itzelaren ondoriozko amaren malko-festa ez zen nolana hikoia izan. Jende frankok egin zuen negar larunbatean BECen.

Han plazan ez nintzen Miren Amurizaren eta bere aita Xabierren artekoaz ohartu, urrutiegi zeuden, baina gero interneten ikusi eta ematen du saioan zehar harreman telepatiko bete-bete dabilzala. Aitak burua makurtu eta sakonki kontzentratzen da uhin telepatiko indartsuak bidaltzeko, alabaren bertsoa gidatzea xede, edo bederen laguntzea; alabak, oholtzan, burua makurtzen du uhin ikusezin horiek ahal bezain artez jasotzeko. Zaila da zehazten uhin horien edukia eta mamia, baina ezin ukatu harremana badela.

Oroitzen naiz xake-final handi batean ezustean xakelarietako bat zutitu eta ikusle batengana zuzendu zela haserre. Aretotik kanporatu nahi izan zuen. Zergatik? Interferentzia telepatikoen bidez kontzentrazioa eragozten ei zion.

Orobat, Karpov Korchnoiren aurka lehiatu zelarik: Karpov sobietar ofizialismoaren ordezkaria zen eta Korchnoi, aldiz, Sobiet Batasunetik ihes egin eta Suitzako banderapean zebilen: gerra hotza xake-taulan, prestigioa eta ohorea jokoan. Halako batean, Korchnoi hanka-sartze infantilak egiten hasi zen, eta errua Karpoven eta KGBren gizon bati leporatu zion, Zukhar doktore misterioitsuari, uhin telepatiko gaiztoak igortzen omen baitzizkion bere ikusle-aulkitik. Eragin txar horri aurre egiteko Korchnoik ere parapsikologoak kontratatu eta Zukharren eraso telepatikoei behar bezala erantzutera eraman zituen finaleko aretora. Gerra txundigarria izango zen noski eraso eta kontraeraso telepatikoak hautemateko gaitasuna izan zezakeenarentzat. Korchnoik galdu egin zuen, eta hil arte uste izan zuen sobietarrek joko zikina egin ziotela, Karpov ez ezik telepatia komunista

ere izan zuela arerio.

Zigortu behar ote litzateke laguntza eta oztopo telepatikoa, dopina legez? Hizkuntzaren kirol nazionalen ere bai? Auskalo.

Markos Zapiain 2010/12/21

## Gezurtia bikotekide

Feminist Economics aldizkariak dakar: Ingalaterran 3.500 bikote inkestatu ditu London School of Economics delakoak, eta frogatuta geratu da dibortzio-kopurua izugarri murrizten dela baldin gizonak etxeko lanetan esku hartzen badu: umeak zaindu, garbiketak, erosketak, eta abar. Berdin dio emakumea etxeko andre den edo etxetik kanpo lan egiten duen. Gizonak irensgailua erabiltzeak sendotzen du bikotea, ez bikotekideen arteko konfiantzak. Konfiantza, hori atzerapausoa.

Platonek, eta Platonen ondoren beste askok, maitasuna gabezia dela adierazi dute, ezin duzula maite falta zaizuna baino. Bestalde, zoriona maite duzun hori erdiesten duzunean pizten omen da, eta halatan ezin luzaz iraun. Behin maitea lortuta, ez zaizu falta, etxean duzu, bere burua eskaintzen dizu. Alta, maitasuna falta baldin bada, eta emaztea ez baldin bazaizu falta, egunero bertan baituzu, orduan ezinezkoa duzu emaztea maitatzea. Abiapuntu honekin, Platonek ezin du azaldu nola gerta daitekeen munduan noizean behin agertzea elkar luzaro maite duen bikote bat. Mirari hori gerta dadin, ezinbesteko baldintza dateke konfiantzak gurean duen gehiegizko ospeaz mesfidatzea.

Gure gizartean behin eta berriro errepikatzen baita lelo faltsu bezain kaltegarri hauxe: bikoteak konfiantza behar du oinarri. Tratu txarra ematearen eta onartzearen azpian maitasun-eredu erromantikoa dagoela salatzen dute adituek, baina ez dute konfiantzaren laudorioa eta premia zalantzan jartzen.

Gezurtiak ez du bikotea osatzeko eskubiderik ala? Konfiantza deritzon hori ez ote da sarritan utzikeriaren pareko, ezintasun halako bat? Zuk zeuk gezurrerako joera baduzu debekatu behar al diozu zure buruari, konfiantza eragin ezinaren izenean, bikote-bizitzarako eskubidea, bistan den arren konfiantza hori sarritan hipokresiak edo ahuleziak ekarria dela?

Bikote gehienetan egitez funtzionatzen duena da nork bere buruari gezurra esateko eskubidea ematea, atzeman ez zaitzaten ahaleginduz, eta aldi berean bikotekidearen markaketa zorrotza eta, gezurretan harrapatuz gero, espantua eta errieta. Nekez eta oker altxatuko dugu Euskal Herria hainbesteko itxurakerian oinarrituta.

Gezurti batekin bizi bazara eta “zer moduz Gasteiz aldean?” galdetzen badiozu, edota “zelan masajistarekin?”, badakizu erantzunak apika zerikusia izango duela enpirikoki gertatuarekin, baina apika ez. Ziur dakizuna da erantzuteko orduan bikotekideak erantzun dizun hori entzunarazi nahi zizula, kito. Eta hori ez da eragozpena amodioz eta laztantasunez bizitzen jarraitu ahal izateko. Hori bai, gezurtiak ganoraz bete beharko luke bere lana. Lardaskeria hutsa litzateke ezustean hirugarren batengandik adarren berri edukitzea, ohiko xehetasun mingarriak. Nolanahi ere, txapuzero horrek ez luke “gezurti” izen ohoretsua mereziko.

Bikotekidea gezurtia atera bazaizu, ezaugarri hori barne behar duzu maite. Alde on ugari ditu gezurtiak: gezurtiaren aldean, beti eta nonahi egiara mugatu beharra duena ezindu antzeko bat da, kamutsa, edo bestela alferra. Egia esateak ez du ahaleginik eskatzen; aitzitik, gezurrak asmamena ez ezik gero asmatuari eusteko irudimenaren etengabeko lana ere eskatzen du. Ariketa horren ondorioz, gezurtia irudimentsuagoa izaten da, barregarriagoa izan daiteke, libreagoa, eta, egiati beti ere zozoagoak ez bezala, ustekabez bete diezazuke ohea.

Markos Zapiain 2010/12/14

## **Bake prozesu berriaren ezaugarri batzuk**

Nazioarteko Boskotea garrantzitsua izango da behin lanean hasitakoan, baina dagoeneko badira elkarrizketak PSEren eta ezker abertzalearen artean, prozesua aurrera doa. Lehen berri edo primizia bat emango dizuet, berri fresko-freskoa.

Igandean Karmelo Landak eta Rodolfo Aresek Bilboko Mao jatetxean bazkaldu zuten. Topalekutzat Mao izeneko toki bat aukeratu izanak sozialisten hurbiltze nahia adierazten du noski, solaskideari konfiantza emateko keinua duzu, berriki espetxetik atera den Karmelo Landa EMKn ibilia baita, kutsu maoista nabarmeneko mugimendua berau.

Halako batean, bi buruzagi karismatikoak zein bere mahaitik altxatu eta komunean sartu ziren. Bertan biak bakarrik luzaro egon ondoren, irribarretsu itzuli ziren jangelara. Mahaira eseri bezain laster, Aresek mugikorretik deitu zuen, ziur aski Rubalcabari, lagun minak dira.

Elkarrizketa babesten edo, jangelan ziren halaber Xabier de Irala, BBKko buruzagi ohia, eta Jon Azua, Ardantzaren Jaurlaritzako industria sailburu eta lehendakariordea. Dena dela, jangelan oroz lehen mister España bat zegoen, Jorge Fernandez, telebista aurkezle ere badena.

Loiolako ereduarenak egin du, bistan da. Susmo hau ari da Euskal Herrian nagusitzen: oraingo elkarrizketak sakabanatuak dira, bikoteka mamituak, gehiegi ezkutatu gabekoak, eta apezpikua beharrez mister edo missen bat dute moderatzaile, edertasunari darion oreka xarmanta lagungarri baitzaio gatazkaren konponbideari.

Markos Zapiain 2010/11/23

## **Chen Wei Yih-ren gorazarrez**

Gure zibilizazioaren joera orokorraren arabera, bikote moldeak, batetik, biziki ari dira aldatzen eta ugaltzen; bestetik, bikotekidea gero eta meheagoa izaten da, gero eta birtualagoa, gero eta bikote gehiago dago norberak gehi internetez osatua. Taiwango andre batek bikotea osatzeko bide berri bat asmatu du.

Taiwango gobernuak emakumeak ezkontzera behartu ez, baina estutu bai, egiten ditu, populazioa igo dadin, jaiotze-kopurua era kezkarria jaitsi baita. Familia eta gizarte giroko ohiko presioez gain (dilema xinpatiko horiek: arraroa delako ote da neskazahar, ala neskazahar gelditu delako bilakatu zaigu arraro?), gobernuak zergen bidez zapaltzen ditu ezkongabeak.

Chen Wei-yih taiwandarrak honez gero ezin du presio hori eraman. Ezkondu nahi zuen, baina ez du senargai egokirik aurkitu, bizialdi osoa berekin igarotzeko modukorik. Hogeita hamar urte betetzera doanez, ekimena bere gain hartu eta ondo samar ezagutzen duen lagun batekin ezkontzea erabaki du: bere burua bikoiztu eta bere buruarekin ezkonduko da. Taiwango legediak ez du halako

originaltasuna aurreikusi eta eragozteko ez irudimenik ez astirik izan. Ezagutzen dutenek diotenez, Chen Wei-yih ez da nartzisista patologiko bat, ezta ziniko mesfidatia ere. Agintarien eta kontrol sozialaren presioari amorrus aurka egin beharrean, konponbide eragingarriagoa asmatu du, benetan baita poetikoa.

Andregai-soinekoa erosi du, lore-sorta ederra, ohiko argazkiak atera ditu, Facebook-en eskegi, jai berezi bat antolatu du, 4.000 eurotik goiti kostatu zaiona, eta orain eztei-bidaia prestatzen ari da, Australiara, bere buruaren konpainia noblean.

Litekeena da hain zuzen albiste horren ondorioz hurbiltzea orain Chen Wei-yihrengana senar-nahiak mordoka, taiwandarraren ausardiak eta autonomiak erakarririk.

Markos Zapiain 2010/11/03

## **Hautsaren jatorri tamalgarria**

Hautsa gogaikarria dela frogatzeko ez da argudio korapilatsuen beharrik: bistan da hautsa kentzen ordu gehiegi galtzen dela eta hautsak ez duela inongo funtzio praktikorik, ez ditu altzariak Gaizkitik babesten. Bikote modernoetan liskar-iturri garrantzitsua izaten da: “Garbitu dezagun egongela!”, “Berriro?, etzi hautsak estaliko du, ez du merezi!”, “Urde zikina!”

Orain badira robot berri batzuk, etxean piztuta utzi eta gelaz gela joaten omen direnak guztia garbitzen, irengailu adimentsuak. Hala ere, oraindik ez daude aski aurreratuak, eta jendeak, nire izeko batek bai behintzat, atzetik jarraitzen dio makurtuta, norabidea zehaztuz eta hurbildik zainduz, eta gero eta okerrago dauka lumbagoa.

Etxeko hautsa, bulegoetakoa, txokoetakoa, gizakiak berak eraginikoa da neurri handi batean, azaleko zelulen desitsastearen ondorio. Giza azaleko zelula hilez dago osatua etxeko hautsaren % 70. Hauts-kopuru jakin bat pilatzen delarik, bixarra edo peluxa osatzen da. Lehergailu atomikoa asmatu dugu, halaber gerra eta tortura, beroketa globala; baina, gainera, hautsa eta peluxa guri darizkigu! Ulergarria baita hainbat pentsalari argi gizaki izateagatik lotsatu izana.

Markos Zapiain 2010/11/02

## **Leturiaren egunkari ezkutua eta Egunero hasten delako**

Biak dira giro berdintsuaren kume, biak oso frantsesak. Txillardegiren eta Saizarbitoriaren nortasunak dira desberdinak, eta horrek badu eragina noski giro frantses hori bereganatu eta ondoren isurtzeko moldean, beren eleberrietako pertsonaietan eta ideietan. Biok bat datozen arren gizakia ezertarako balio ez duen pasioa dela baieztatzeko orduan, alferrikako grina, pasio inutila, Sartrek zioen bezala, nabarmenagoa da kutsu soziologikoa Egunero hasten delako-n; Txillardegik introspekziara jotzen du gehiago.

Txillardegik natura maite du, Leturiak zoriona naturan eta bakardadean aurkitzen du maizenik. Gogoko du bere sentipenak, sentimenduak eta arrazoiak, bere burua, naturako bakarlekuetan aurkitzea eta aztertzea. Hori bai, ez da natura basatia izaten, baizik mendixka, lorategia edo parkea, Leturiaren egunkari ezkutua-ko parke urmaelduna bezala, Zerubide, bere bankutxoekin.

Aitzitik, Saizarbitoriari bakardadea ez zaio laket: batetik, bere buruarekin bakarrik egotea pairagaitz zaio, eta, bestetik, errukigarri zaio jende bakartia, gure gizarteek jendea bakardadera derrigortzen duten egoerak gorroto ditu, aurka egingo die. Adibidez, neska gaztea tren geltokian bakarrik trenaren zain, maleta alboan duela, eta ondoko erromesaldia medikuz mediku, ea nork egingo dion abortua, mediku gehienen aldetik errieta, mespretxua edo hoztasuna jasotzen duela.

Gisèleren bakardadeak “berritsu” deitu izan denaren gupida ere pizten du. (Bide batez, gutxietsi egin izan da pertsonaia hori, berritsukeria leporatu eta horixe hartu baita haren ezaugarri nagusitzat, baina pentsalari interesgarri bat da, erlatibista antidogmatiko sentibera, biziki komunikatiboa, eta tren geltokiko tabernako edota lokutorioko gogoetak freskoak bezain ausartak dira, eta aberatsak beren aniztasunean: estiloaz eta heziketaz, gustu estetikoaz, gaizkiaren eta ongiaren kopuruak aldagaitzak direla ziur jakiteak ekarri beharko lizkigukeen aldaketez gure jarrera moraletan, naturaren krudelkeriaz, antisorgailuez eta etorkinez, Aldous Huxleyren “Bai mundu berria” eleberriaz, larru jotzeaz eta maitasuna egiteaz, gaztediaz...)

Historia-irakasle kalakari hau eta Gisèle arbuio batean datoz bat (eta horrek Txillardegirengandik urrutiratzen ditu): beraientzat natura gaiztoa da, indartsuak beti menperatzen baitu ahula, naturak malderrari ez dio inongo babesik eskaintzen.

Kontrakotasun horren adierazpen da, halaber, Txillardegik eta Saizarbitoriak hain animalia desberdinak aukeratu izana beren nobeletarako. Txillardegiren eleberrietan oso indartsua da ugaztunaren presentzia: zakurra (Leturiaren egunkari ezkutua-n, zehazki, Miren maitearen Pintto), ziminoa, katua eta zaldia. Txillardegik ez zuen alferrik abiarazi euskal eleberriaren historiako Ugaztunaren Aroa.

Saizarbitoriak ugaztunak ikusi ere ez ditu egiten, bere nobeletako animaliak heriotzari lotuak dira, heriotza tragikomikoa ia beti: sardina latan da txapeldun, baina Luxio muslaria hiltzen duen zezenburu disekatu ere hor dago, hormatik desitsatsi eta Luxioren gainean erorita, edota, bestelako aldarte batez, etakidearen odola miazkatzen duten usoak.

Bi idazleon ikuspuntu politikoen arteko aldea naturaren aurrean duten jarrera desberdinetatik ere ondoriozta liteke hein batean: Saizarbitoria gizarte-gaiek mugiarazten dute batez ere, natura ankerrak edo gizarte ergelak baztertutakoak babesteko gogoak, hala nola zaharrak, gudari ohi mainguak, nahi gabe haurdun gelditutako neska gazteak...

Txillardegik, aldiz, giza harrokeriak desagerrarazi nahi lituzkeen diferentzia naturalen alde borrokatzen du. Giza harrokeriak gainerako animaliangandik bereizi nahi izaten du, giza berezitasuna kosta ahala kosta gailendu, edo bestela jende eta herri desberdinak uniformatu. Halatan, kaiolaturiko ziminoak eta hartzak piztuko dute Txillardegiren gupida, labarretik amilduriko astoak; edo giza aurrerapen inperialaren izenean suntsitu nahi diren herri txikiak, hala nola gurea. Aberriaren aldeko borroka armatuari dagokionez, Txillardegik bikotekidearengandik bereizi behar mingotsa azpimarratzen du eskuarki, historiari ekitekotan biologiatik, maitearen epeletik, aldendu behar zaila; Saizarbitoriak, berriz, ekimen militarrik bikote-bizitzari eta ugaltzeari dakarkion hondamendia nabarmentzeko joera izaten du.

Edonola ere, Saizarbitoria alaiagoa da. Bizitza egunero hasten da, eta Gisèle, abortatu ondoren, berpiztu egiten da, bizipoza berreskuratzen du. Txillardegiren ezkortasunak, ostera, ez du zirrikiturik. Bizitza liluratzea da, eta liluratze oro abortu eginik itzaltzen da ezinbestez. Herioren nagusitasuna errotikoa da antiguatarrarenean. Saizarbitoriaren gurarietako bat, kontrara, hauxe litzateke: hiltzen ari garen artean, bila edo asma ditzagun jendartean ahalik eta oinazerik apalena nozituz moldatzeko jokabideak; guztiok hiltzera goazenez, hilerrira bidean, gorputzak usteltzen zaizkigun bitartean, konta diezazkiogun elkarri desira eroari eta gorputzen usteltzeari buruzko istorio hunkigarri eta barregarriak.

Markos Zapiain 2010/10/28

## Esperma perilos

Gaur egungo gazteak gu ez bezala mintzo dira, batetik azalari dagokionez, haien berbetak gero eta antz handiagoa baitu mugikorretako esamesekin eta tuentiko mezuekin, eta bestetik mamiari: esan liteke oro har lotsa gutxiago dutela, deshinituagoak direla, onerako zein txarrerako. Gu inolaz ere ausartuko ez ginatekeen kontu intimoen berri ematen dute ikaskideen eta irakaslearen aurrean. Orain ipiniko dudak adibideak bide batez erakutsiko du, hizkeraren naturaltasunaz gain, zenbait aurreiritziren indarra suntsiezina dela. Milaka ordu sartzen diren arren gaur egun sexu heziketan, hala ere lehengoan hamasei urteko mutiko batek ziurtatu zigun semena barrabiletan utziz gero usteldu egiten dela, eta horren ondorioz barrabilen jabea hil daitekeela, eta bera gozamenagatik apur bat bai, baina batez ere beldur horrek bultzatuta pasatzen dituela gauak eta egunak fusila garbitzen, bere burua hazi ustel hiltzailearen mehatxutik babestearren. Irakasleak noski ez zion egia zientifikoa jakinarazi, jarduera horrek ikaslea baretzen baitu, edo ahitu, eta horrenbestez erosoagoa zaio Institutuari.

Markos Zapiain 2010/10/27

## Kako eskean

Zenbait arazo desatsegin konpontzeko ez da behar borondate on apur bat baino. Tabernetan, komuneko zola ez da munduko tokirik garbiena izaten. Eta, beroketa globala gorabehera, urteak baditu oraindik egun asko hotz-hotzak. Bazoaz tabernako komunera tanpoia aldatzera. Nonbait utzi behar berokia, poltsa eta bufanda. Behegainean, zolan? Han izkinan bada pixazko putzutxo bat, ile xerlo nahasia igeri. Komuneko taparen gainean? Irekirik behar duzu ordea. Deialdi nazionala tabernariei: mesedez, komunitan ipini kako sendo batzuk, ez da batere garestia eta handia da egingo lukeen mesedea.

Markos Zapiain 2010/10/27

## Zerrendak goitik behera

Bernard Sèvek “De haut en bas. Philosophie des listes” (“Goitik behera. Zerrenden filosofia”) izenburua jarri dio bere azken liburuari. Deigarria gertatzen da izenburu hori, zerrendatze asko horizontalean egiten baita, ezkerretik eskuinera: Homerorenean, literaturan oro har... Sèvek ihardesten du arkeologoen ustez lekua aurrezteko egiten zela horizontalki. Eta goitik beherakoak izaten zirela dauzkagun zerrendarik aspaldikoenak, soldaduak zerrendatzen zituztenak. Ia berezkoa omen du zerrendak goitik beherako norabidea. Zutabeak bere forma hutsari esker erakusten du ez dela esaldi, bertan idatzirikoa sintaxitik libre dabilela. Eta sintaxi gabeziak adierazten du ez dagoela

esaldiari dagokion hierarkizatzerik, menpekotasunik.

Hala ere, zerrendak anabasa ordenatu nahia adierazten du aldi berean, kaosean zentzuren bat marraztu nahia, munduaz nolabait jabetu nahia.

Zerrenda batzuek giza ahalmen kognitibo eta moralak jokoan jartzen dituzte; oroz lehen, oroimena. Zerrenda oroimenari laguntzeko tresna gisa erabiltzen dugu maizenik, oroimenaren lan neketsuaren aringarri.

Zerrenda pragmatiko askotan, erosketen zerrendetan adibidez, ez dugu ezer ahaztu nahi, eta ezer ez ahaztu nahi hori nagusitze nahi bat da, zentzu-ezartze bat. Eguneroko jardun xume baten gaineko gailentze apala, ados, baina azken batean nagusitzea.

Zerrenda batzuk desordena ikusgarrian aurkezten dira, pilatze sakabanatu traketsak dira. Dena den, zerrendaren paradoxa da munduko desordenatuena izan arren berez dakarrela ordenatze ñimiñoren bat. Berriro erosketen zerrendak: erosi beharrekoa burura datorkigun heinean apuntatzen dugu, era nahaspilatuan, baina deus ere ahaztu nahi ez izateak ordenatze-gurari bat ere erakusten du, umila izanagatik ere.

Sekretu sakonak ezkuta ditzake erosketa-zerrendak: gure lagunenak goitik behera ezagutuko bagenu ezusteko galantak genituzke, asko genekike beren izaera gordez.

Beste zerrenda-mota bat bildumazalearena da, eremu jakin bat goitik behera menperatu nahi duenarena, zerrenda obsesiboa, literarioena behar bada; hemen kokatzen du Bernard Sévek Bouvard eta Pecuchet-en entziklopedia, jakintzak oro osotoro jaso nahi lituzkeena. Antzeko joranak bultzatzen du Sartreren Goragalea-ko autodidakta ere, liburutegiko liburu guztiak nahi baititu irakurri, alfabetoaren ordenari jarraiki. Deus ere ez ahaztea da beti ere puntua, deus ere ez galtzea.

Erosketen zerrendak idaztera bultzatzen gaituen grina ez bezalakoa da, haatik, bildumazalearen zerrendatzean abian dabilen esparru edo geruza psikikoa. Helburua ez baita soilik egunerokoa antolatzea; mundua eta zure burua menperatzeko bulkada kezkarri eta bortitza ere nabari baita. Irrika-gune bilakatzen da zerrenda, desira gogorren erakarle.

Behin zerrendan ageri dena erdietsita, ezabatu egiten da ia beti papera, desagerrarazi. Baina batzuetan, egitekoen zerrenda idazten duzu, burutu egiten dituzu, baita apuntatzea ahaztu zenuen beste egitekoren bat ere, eta gero etxean, egiteko hori jadanik burutua izan arren, apuntatu egiten duzu hala ere, zerrenda zeharo biribildurik gera dadin, zaborrontzira bota baino lehen. Oso ohitura zabaldua da hori, gure etxean bertan, eta zerrendaren alde obsesiboetako bat erakusten du, praktikotasuna aise gainditzeko duena.

Jadanik eginikoa ere zerrendatzeko ohitura horrek erakusten baitu etorkizunari begiratzen dioten egitekoen zerrendak ez ezik badirela orobat iraganari begiratzen diotenak. Hauen betebeharra litzateke erakustea munduarekin hitzartutako eginbeharrak zintzoki bete ditugula. Iraganari begiratzen dion zerrendak ziurtatuko luke, eta batik bat liguke, onezkoak egin ditugula gure

buruarekin eta unibertsoarekin, bakean gaudela azkenik.

Ezagutzen dudan zerrendarik politenak ez dio ez etorkizunari ez iraganari begiratzen, betierekoa baita. Jorge Luis Borgesek dakar “John Wilkinsen hizkuntza analitiko”-n. Argentinarrak dioenez, txinatar entziklopedia batek honelaxe sailkatzen ditu animaliak: a) enperadorearenak, b) baltsamatuak, c) etxe abereak, d) txerrikumeak, e) sirenak, f) alegiazkoak, g) zakur libreak, h) sailkapen honen baitakoak, i) gorputza ero moduan astintzen dutenak, j) kontaezinak, k) gamelulezko pintzel oso fin batez marraztuak, l) eta abar, m) goseak hil berriak, n) urrutitik euliak diruditenak.

Zerrendak aukera berriak eskaini dizkio pedagogiari. Dakitenek diotenez, irakasgaiak hobeto txertatzen dira ikasleen oroimenean jolasaren bidez. Gure institutuan jolas hauxe erabiltzen dugu arrakastaz: ikasgaiari loturiko zerrenda jakin batean ikasleak sarkina harrapatu behar du.

Demagun filosofo grekoen zerrenda hau: 1) Parmenides; 2) Heraklito; 3) Sokrates; 4) Platon; 5) Ilaski Serrano; 6) Aristoteles; 7) Epikuro

Edo Historian, EAEko lehendakariak: 1) Jose Antonio Agirre; 2) Jesus Mari Leizaola; 3) Karlos Garaikoetxea; 4) Jose Antonio Ardanza; 5) Lady Gaga; 6) Juan Jose Ibarretxe; 7) Patxi Lopez

Zerrenda horietan bada elementu bat arrotza. Ikasleak antzeman egin behar dio. Gure ikastetxean ia beti asmatzen dute (lehenbiziko zerrendan Ilaski Serrano da; bigarreanean berriz Lady Gaga).

Markos Zapiain 2010/10/19

## Porrotxen bibotea

Takolo, Pirritx eta Porrotzek oso txikitandik pizten dute euskal umeengan fan eta miresle aldartea. Behin batean Elorrión, gure alaba bat, Porrotx agertokitik jaitsi eta argazki baterako posatzera hurbildu zitzaionean, negarrez hasi zen hunkituta. Hunkidura hura Jonas Brothersengana bideratuko zuen gerora.

Batzuetan ordea ez da transferentziarik gertatzen eta Takolo, Pirritx eta Porrotxengan finkatzen da behin betiko miresle grina hori. Horixe da Xabi Paya gazi-gozokide ohiaren kasua. Azkenaurreko Argian kontatu digu Birminghamera joango dela urte beterako, Etxepare institutuaren eskutik. Baina ez digu kontatu nolako despedida izan duen. Lagunek merezi bezalakoa egin diote, hunkigarria bezain ederra. Baita berebiziko ezustekoa eman ere, Xabiren talde gogokoena ekarri baitute agur- festara: Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Bestalde, ohiko galdera da zer ote dugun euskaldunok desberdin, zerk egiten gaituen bakan eta berezi munduan. Hizkuntza aipatzen da, baina herri orok du hizkuntzaren bat, edo asko.



Inongo herrik ez duena da pailazo bibotedun bat, gure berezitasunik nabarmena ziurrenik. Bitxia baita zinez: Berri Txarrak-ekoek pailazo korbataduna aipatzen dute “Zirkua” abestian, baina nanoa da zirku horretako biboteduna. Google-n ikertu, bilatu “moustached clown” edo “payaso bigotudo”, eta biboterik gabeko pailazoak agertuko zaizkizu, edo pailazoak ez diren bibotedunak, edo bestela Maradona, Benedikto XVI.a, Michael Jackson, Batmaneko Jokerra, Obama, edonor, baina pailazo bibotedunik, alerik ere ez. Pailazo bibotedunarena da zirkuko ikonografiari euskaldunok egin diogun ekarpenik garrantzitsuena. Biba gu eta biba Joxe Mari Agirretxe, Porrotx, poz handiagoa eman baitio Euskal Herriari Elkano, Loiolako Inazio eta beste euskal unibertsal guztiak batera baino, eta gainera unibertsoari erakutsi dio pailazoak badakiela bibotea prestuki eramaten.

Markos Zapiain **2010/10/14** **Erantzun kopurua 4** [1] [2](#) [3](#) [4](#) ... [45](#) [Hurrengo 10 elementuak »](#)



## Markos Zapiain

1963an jaio nintzen. Markos Zapiain naiz ia beti. Baina ez zidaten soldaduzka egiten utzi, nortasun bikoitza dela eta. Batzutan Pelipe pizten da ene baitan. Pozik ibiltzen da oro har Pelipe. Baina haserretzen denean, kontuz.

- [Zer da Ilustrazioa?](#)
- [Markos Zapiain naiz ia beti](#)

### AZKEN ERANTZUNAK

[Ideia bat](#) Mikel H. Abaitua, 2010/11/15

[Marx anaien kamarotea!](#) leire, 2010/11/08

[Maialen Lujanbio gogoan](#) Patxi traperero, 2010/11/08

[Komunean zurekin eta Patxiarekin gogoratu nintzen!](#) leire, 2010/11/07

[Gutziz harrituta utzi nauzu](#) Mikel Hernandez Abaitua, 2010/11/06

### AZKEN SARRERAK

[Bizkaiko bertsolarien finala](#) 2010/12/21

[Gezurtia bikotekide](#) 2010/12/14

[Bake prozesu berriaren ezaugarri batzuk](#) 2010/11/23

[Chen Wei Yih-ren gorazarrez](#) 2010/11/03

[Hautsaren jatorri tamalgarria](#) 2010/11/02

### ETIKETA LAINOA

[bermeo etakideen ametsak globalizazioaz irun kalakakoak liburuak eta idazleak](#)

### HONI BURUZ

[Kontaktua](#)

[Artxiboa](#)

[Atom jarioa](#)

[Erantzunen RSS jarioa](#)